# Txostena 2020




EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

# Aurkibidea


## Aurkezpena — 3

## Gure ekimenak — 8

Elkartasuna da erantzuna ........ 9
Generoa ........ 11
Eragin politikoa ........ 13
Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza ........ 16
Sektorea sendotzea eta zerbitzuak ........ 20
- Publikoari, GGKE-ei eta instituzioei arreta ........ 20
- Formakuntzak eta jardunaldiak ........ 22
- Ikerketak ........ 25

Komunikazioa ........ 26

## Nortzuk gara — 28

Gobernu Batzordea ........ 29
Lan-taldeak ........ 29
Erakundeetan partaidetza ........ 30
Talde Teknikoa ........ 30
GGKEak ........ 31

## Kontu argiak — 32




# Aurkezpena



Euskadiko garapenerako gobernuz kanpoko 79 erakundek (GGKE) osatutako kolektibo bat gara, eta nazioarteko lankidetzan eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzan egiten dugu lan. 1988z geroztik, garapenerako lankidetza kalitate onekoa izan dadin sustatzen aritu gara, hala instituzio publiko eta pribatuetan, nola bazkide diren GGKE-etan. Laguntza ematen diegu erakundeei beren lanean, eta haien ahalmen politikoak eta teknikoak areagotzen laguntzen diegu. Gainera, gure ingurunean eraldaketa soziala gauzatzen laguntzen dugu, horrela mundu-mailan ere aldaketak lortzeko.

Horretarako, gure jardueren ardatz izaten dira, besteak beste, herritarrengan elkartasunaren kultura sustatzea, gure inguruan eta munduko herrialde zaurgarrienetan berdintasun eza eta pobrezia eragiten dituzten egiturak alda daitezen bultzatzea, parte-hartzea sustatzea, eta eztabaida kritikoa bultzatzea, gure garapen-eredu patriarkal eta neoliberalak berdintasunik ezarekin eta pobreziarekin duen loturaz. Gure ustez, pertsonen eta herrialdeen garapena oztopatzen duten mekanismoei buruz hezten, sentsibilizatzen eta kontzientziatzen gaitu lankidetzak.







SARE SOZIAL HAUEN BIDEZ ERE IZAN DEZAKEZU GURE JARDUEREN BERRI:
FACEBOOK, TWITTER, YOUTUBE, VIMEO, INSTAGRAM eta IVOOX.

Justizia sozialaren alde egiten dugu lan, genero-ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkor baten alde, pertsonen bizia eta duintasuna politiken ardatz bihurtuz, beste lehentasun batzuen aurretik. Giza garapena eragozten duten oztopoak ezabatzearren herri pobretuekin batera lan egitea, horixe da gure ustez garapenerako lankidetza, eta horrela aritzen gara Euskadin. Prozesuaren oinarria beti dira elkartasuna, elkarrekikotasuna, eskuzabaltasuna eta doakotasuna, eta inoiz ez transferentzia ekonomiko hutsa.

Honako hauek dira gure hiru ekintza-lerro nagusiak: sektorea eta gure erakundea bera sendotzea, euskal lankidetza-politika defendatzea, eta herritarrak informatzea eta eraldatzea kontzientzia kritiko bat sortze aldera. Gure iritziz, sustatu beharrekoak dira demokrazia partizipatiboa, independentzia, gardentasuna, koherentzia eta genero-ekitatea. Horretarako, topaketarako, eztabaidarako eta gogoetarako eremuak bideratzen ditugu, jarrera eta irizpide komunak adosteko. Halaber, aliantzak iruten ditugu gure xede berak dituzten beste mugimendu sozial batzuekin.






Euskadiko GGKE-en Koordinakundea nahiz hango kide diren erakundeak Jarrabide Kode komun bati jarraituz aritzen gara; hain zuzen ere, kode horretan daude jasota gure lana gidatzen duten printzipioak eta balioak. Batzar Orokorra da erabakiak hartzeko esparru nagusia, eta bazkide diren GGKE-ek osatzen dute. Gutxienez urtean behin biltzen da, dagokion ekitaldiko irizpideak eta lan-ildoak finkatzeko. Lurralde Batzarrak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru ordezkaritzen gobernu-organoak dira, eta lurralde bakoitzean kide diren erakundeek osatzen dituzte. Gobernu Batzordea erakundearen organo exekutiboa da, eta jarduerak programatzen eta zuzentzen ditu Batzar Orokorrak zehaztutakoaren arabera. Bestalde, lantaldeak bazkide diren GGKE-ez osatuta daude, eta erakunde guztientzat lan egiten dute zenbait esparrutan, esate baterako: politikan, genero-arloan, komunikazioan, mobilizazioan eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzan. Hiru lurralde-ordezkaritzetatik, eta lantalde teknikoak lagunduta, aipatutako espazio horietan adostutako erabakiak gauzatzen dira, Euskadiko lankidetzaren alorreko GGKE-ei, erakundeei eta eragileei zein herritarrei informazio- eta aholkularitza-zerbitzua emateaz gainera.

1999az geroztik, Espainiako Garapenerako Erakundeen Koordinakundeko kide gara. 2009an, Eusko Jaurlaritzak Ignacio Ellacuria saria eman zigun, garapenerako lankidetzan egindako lanagatik. Euskararekin dugun konpromisoaren erakusle, Araban eta Bizkaian Euskararen bidean ziurtagiria daukagu, eta Gipuzkoan, Zerbitzua euskaraz ziurtagiria, biak Bai Euskarari elkarteak emanak.






6 Harian

Koronabirusa

«Eskubideak oinarri izan behar dira krisi honetatik ateratzeko»

Esther Calvo • EAEko GKEen Koordinakundeko bozeramailea

Koronabirusak eragindako krisirako erantzun globala eskatu dute GKEek: mundu mailako plan ekonomiko bat onartzea eta kanpo zorra barkatzea aipatu dute, herrialde pobretuak bazterrean gera ez daitezen.

GURE WEBGUNEAN ETA YOUTUBEKO KANAL HONETAN, 2020KO GURE LANA EZAGUTU DEZAKEZU.

# Gure sarea osatzen duten GGKEak datuetan[1]



## Jarduera-esparrua

Proiektuen **% 74,6** garapenerako lankidetzara bideratzen dira, **% 21,6** gizarte-eraldaketarako hezkuntzara, eta **% 3,7** ekintza humanitariora.

Erakundeek proiektuetara bideratzen dituzten funts ekonomikoetatik **% 78,7** garapenerako lankidetzako ekimenetara bideratzen dira, **% 13,6** gizarte-eraldaketarako hezkuntzara, eta **% 6,7** ekintza humanitarioko esku-hartzera.



## Finantzaketa-iturriak

Erakunde **guztiek** jasotzen dute finantzaketa publikoa, eta **% 85,7k** finantzaketa pribaturen bat jasotzen du. Funts publiko horien **% 71** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziatik datoz, **% 11,1** Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietatik, eta **% 17,9** beste erakunde batzuetatik (Euskal Autonomi Erkidegoko udalak, estatuko, autonomia-erkidegoetako edo tokiko beste administrazio batzuk, Europako administrazioa eta beste iturri batzuk).



## Oinarri soziala

Erakunde hauek **39.000** bazkide dituzte (% 53,9 emakumeak dira) eta **17.000** dohaintza-emaile (% 57,7 emakumeak dira).

**3.800** boluntario inguruk laguntzen diete erakunde horiei (% 70,5 emakumeak dira).



## Genero-berdintasuna

Erakundeen **% 90,2k** genero-estrategia bat dute.

GGKE-etako talde teknikoetako pertsonen **% 71,3** emakumeak dira. Horiek sektoreko boluntarioen **% 70,5** dira, baina erakundeen erabaki-organoetan duten ordezkaritza **% 57koa** da.



## Esku hartzen duten eremu geografikoak

Lankidetza-proiektuen **% 43** Latinoamerikan egiten dira, **% 32,6** Afrikan eta **% 20,9** Asian.

[1] Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak 2020an egindako urteko sektorearen diagnostikoa (2019ko datuak).

# Gure jarduerak



# Elkartasuna da erantzuna

2019. urtearen amaieran, COVID-19ak osasun-larrialdiko egoera eragin zuen, eta, 2020. urtean zehar, mundu osoan hedatuz joan zen. Historia hurbilean aurrekaririk ez duen egoera honek planeta astindu du, eta Euskadiko GGKE-en, lankidetzaren eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen beraren lana baldintzatu du.

Osasun-krisi hau eta gure ingurune hurbilenean nahiz euskal lankidetzak esku hartzen duen lekuetan eragin dituen ondorioak izan dira gure lanaren ardatz nagusietako bat, 2020. urtean. Gizarte eraldaketarako sentsibilizazio- eta hezkuntza-ekimenen, eragin politikorako eta komunikaziorako jardueren, sektorea indartzeko ekintzen, edo prestakuntza-jardueren eta jardunaldien bidez, besteak beste, pandemia eta horretatik ateratzea presente egon dira gure jarduketa gehienetan; hala ikus daiteke jardueren memoria honetan.

Berariazko kanpaina bat ere egin dugu: *Elkartasuna da erantzuna.* Bertan, erakundeko hainbat lantaldek eta arlok hartu dute parte, eta hainbat helburu batu ditugu, hala nola osasun-krisi globalaren inguruan sentsibilizatzea eta erakundeetan eragitea lankidetzaren alde egin dezaten pandemiaren irtenbide gisa. Ekimen guztien artean, hauek nabarmendu nahi ditugu:

··· Politika Publikoak, Ikerketa eta Eragina arloan, Eragin Politikoa taldearekin batera, gure erakundeak osasun-krisiaren aurrean izan behar duen jarrera landu dugu. *Elkartasuna deskonfinatu eta globalizatzea: COVID-19aren krisialditik modu bidezko eta inklusiboan atera gaitezen* izan da horren izenburua, eta nazioarteko ikuspegia eta giza eskubideak kontuan hartuz landu da.

··· Jarrera horretatik abiatuz, Elkartasuna da erantzuna izenburudun bideo hunkigarri bat egin dugu pandemiaz, haren lotura globalez eta hura gainditu ondoren gure gizartea eraldatzeko dugun aukeraz sentsibilizatzeko. Urtearen amaieran, Un año en el que aprendimos izeneko beste bideo bat egin dugu, herritarrei egindako ahalegina eskertzeko, GGKEak osasun--krisiaren eragile garrantzitsu gisa aurkezteko eta urte berria zoriontzeko.

GURE WEBGUNEAN IRAKUR DEZAKEZU GURE JARRERAREN BERRI, ETA YOUTUBEKO GURE KANALEAN IKUS DITZAKEZU BIDEO GUZTIAK.

··· Sare sozialetan, *Mundu bat, mehatxu bat,* erronka bat sentsibilizazio-ekintza egin dugu, hainbat sektorek eta pertsonak pandemiari lotutako gaietan testigantzak emateko. Hainbat hilabetetan, galderak egin ditugu astero gure sare sozialetan, #ElkartasunaDaErantzuna etiketapean, hausnarketak sustatzeko.



**Elkartasuna deskonfinatu eta globalizatzea: COVID-19aren krisialditik modu bidezko eta inklusiboan atera gaitezen**

Zigmunt Bauman soziologo poloniarrak *Society Under Siege* lanean adierazi zuen moduan, "orain inoiz baino gehiago, gizateria bidegurutze baten aurrean dago: bide batek lankidetzara darama, besteak erabateko suntsipenera". Hain zuzen, argi dago mundu hau globalizatuta eta interkonektatuta dagoela. Inork hori zalantzan jartzen bazuen, COVID-19aren hedapenak argi utzi du: ez dago krisialdi hau bere kabuz gainditzeko gai den naziorik, eta ezin dugu inor ahaztu erronka global honi arrakastaz egin nahi badiogu aurre.

Koronabirusa Euskadira iritsi zenetik, aste gutxi batzuetan agerian geratu da gure ekonomia- eta gizarte-ereduaren ahultasuna. Etxean geratu behar izan dugu, mugikortasunari uko egin, lan-ereduari buruz berriro hausnartu eta gure ekoizpen-kateak eta geure elikadura ere berrikusi. Laburbilduz, biztanleria osoa zaurgarritzat hartu ahal izateak ispilu baten aurrean jarri gaitu, eta ikusi dugu hemen, munduko gainerako lekuetan bezalaxe, urrun gaudela zaintzaren behar sozialaren arazoa konpontzetik. Hala, pandemiak agerian jarri ditu askotariko desberdinkeria estrukturalak: estaldura publiko mugatua, lan-sektore prekario eta prekarizatua, karga gehiegi dituzten familiak –zaintzak beren gain hartu dituztelako– eta genero-desberdinkeria, hala soldatapeko esparruan nola familien barneko banaketan eragina duena. Egoera are okerragoa da 2008ko krisialditik gizarte-murrizketak jasaten ari diren herritar zaugarrienentzat. Horren adibide dira, besteak beste, etxerik ez duten eta/edo kalean bizi diren pertsonak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, adinekoak, desgaitasunen bat duten pertsonak, migratzaileak, ijitoak, langile informalak, etxeko langileak eta aldi baterako langileak; alegia, sistemaren marjinetan dauden pertsonak.



··· Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzaren taldean, *Eraikuntza* podcasta sortu dugu. Lau kapituluko sail bat da, herritarrek kalean emandako testigantzak biltzen dituena, COVID-19aren ondoren gizartea berreraikitzen lagundu dezaten. Besteak beste, gai hauek landu dira: pandemiaren ondoren eraiki nahi dugun mundua, horretarako behar ditugun balioak, hori posible izan dadin egingo ditugun itunak edo bidelagun izango ditugun eragileak, eta helburua lortzeko norbanako gisa hartu behar ditugun konpromisoak. Lehen saioa 2020an zabaldu da, eta gainerakoak 2021ean.

**IVOOX-EKO GURE KANALEAN ENTZUN DEZAKEZU ERAIKUNTZA PODCASTA.**

··· Generoa, Sektorearen indartzea eta Formakuntza arloak bultzatuta, bi inkesta egin dira gure sareko GGKE-en artean, osasun-krisiak haietan zer eragin izan duen jakiteko, esaterako, lankidetza-proiektuetan, gizartea-eraldaketarako hezkuntza-proiektuetan, lan-esparruan… Horrez gain, erakundeen proposamenak jaso dira, testuinguru korapilatsu honetan Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak eman diezaieketen laguntzari buruz. Lehen inkestako datuak apirilean aurkeztu genituen, eta bigarrenak, uztailean, ekitaldian izandako bilakaera eta joera jakiteko. Halaber, krisi betean sektorearen argazkia osatzeko, aldi horretan GGKE-ek egindako lana sistematizatu dugu.

··· Ekimen horiekin guztiekin batera, komunikazio-ekintzak garatu dira; horiei esker, gure erakundeak pandemiaz, haren inpaktuaz, tokiko konexioez nahiz konexio globalez duen ikuspegia ezagutarazi ahal izan dugu, bai eta egoera honetatik irteten laguntzeko sektoreak egin dituen proposamenak ere. Besteak beste, komunikabideetan egindako hainbat elkarrizketa nabarmendu behar dira, bai eta idatzizko prentsan argitaratutako *Día a día desde la solidaridad feminista para cambiar el mundo* iritzi-artikulua ere, Generoa taldeak sustatua.

Gure saretik bultzatu ditugun jarduerez gain, beste ekimen batzuk ere babestu ditugu. Horien artean, *Elkarlanean dihardugu. Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu. Garapenerako lankidetzarako euskal eragileak* izeneko sentsibilizazio-kanpaina nabarmendu behar dugu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (H)abianekin eta Euskal Fondoaren babesarekin sustatua. Kanpaina horren helburua, hain zuzen, Euskadiko lankidetzak pandemian izandako papera indartzea izan da. Prestaketa-bileretan parte hartu dugu, ekimena GGKE-etara zabaldu dugu, eta erakundeetako euskal kooperanteak identifikatu ditugu, komunikabideetan beren testigantzak emateko prest daudenak. Espainiako Garapenerako GKE-en Koordinakundearekin ere koordinatu gara, pandemiaren esparruan komunikazio-ekintza bateratuak gauzatzeko, eta lankidetzaren eta GGKE-en funtzioa balioan jartzeko. Horrez gain, Erkidegoetako Koordinakundeen Sareko Komunikazio-taldeak sustatutako *Elkartasunaren indarra* ikus-entzunezko kanpainan hartu dugu parte, aipatutako helburuekin bat datorrena.


Diario de Noticias de Álava – Jueves, 16 de abril de 2020 — ARABA 15

ALERTA MUNDIAL POR EL CORONAVIRUS →

GKEaren bideoaren sekuentziaren irudi bat. *Argazkia: GKEaren bideotik hartua*

**Elkartasuna globalizatu behar dela diote euskal GKEek**

"Ezin dugu inor ahaztu erronka global honi arrakastaz egin nahi badiogu aurre"

kabuz gainditzeko gai den naziorik, eta ezin dugu inor ahaztu erronka global honi arrakastaz egin nahi badiogu aurre", adierazi zuten atzo Euskadiko GGEtik. "Koronabirusa Euskadira iritsi zenetik, aste gutxi batzuetan agerian geratu da gure ekonomia eta gizarte-ereduaren ahultasuna. Etxean geratu behar izan dugu, mugikortasunari uko egin, lan-ereduari buruz berriro hausnartu eta gure ekoizpen-kateak eta geure elikadura ere berrikusi. Laburbilduz, biztanleria osoa zaurgarritzat hartu ahal izateak ispilu baten aurrean jarri gaitu, eta ikusi dugu hemen, munduko gainerako lekuetan bezalaxe, urrun gaudela zaintzaren behar sozialaren arazoa konpontzetik".Hala, beraien esanetan ere, pandemiak agerian jarri ditu askotariko desberdinkeria estrukturalak: estaldura publiko mugatua, lan-sektore prekario eta prekarizatua, karga gehiegi dituzten familiak –zaintzak beren gain hartu dituztelako– eta genero-desberdinkeria, besteak beste. "ezohiko egoera honek gogorarazten digu birusa gaindituko duen proiektu politiko eta sozialak arau etiko bati jarraitu behar diola, zeinaren arabera bizitza guztiei balio berdina eman behar zaien, non jaio diren kontuan hartu gabe", adierazi zuten.

"Azken batean, Euskadiko GGKEen Koordinakunde gisa, eta ikusita Covid-19aren hedapenak sortu duen krisialdia eta horrek mundu globalizatuko zati handi batean izango dituen gizarte eta ekonomia-eraginak, krisialdiaren kausen eta ondorioen interpretazio okerra egitearen arriskuari buruz ohartarazi nahi dugu, eta eskatzen dugu elkartasun-loturak indartu daitezela mundu osoan zehar". – E. F. D.



# Generoa

Gure jardun guztian zeharka genero-ikuspegia bermatuta dagoela zaintzen dugu, arlo hori lantzen dugu erakunde publikoekin, eta laguntza eta prestakuntza ematen diegu arlo horretan GGKE-ei eta beste eragile sozial batzuei. Hona hemen gauzatu ditugun zenbait jarduera:

··· Gure erakundearen Sexu-jazarpeneko eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoeretan prebentzioa lantzeko eta esku hartzeko protokoloa zabaltzen jarraitu dugu. Tresna horren bidez, gure erakundean eta kide diren erakundeetan gai horretan gerta daitezkeen jokabideak prebenitu eta desagerrarazi nahi ditugu, eta babes-esparru bat eman nahi diegu sektorearekin lotutako pertsona guztiei. Tresna hori aurkezteko eta horretan sakontzeko, saio bat antolatu dugu, prestakuntzen eta jardunaldien atalean zabaldu dena.

··· Jarraipena egin diogu gure Genero-politikari, eta bete dadin zaindu dugu. Horrez gain, onartu zenetik 9 urte pasatu direnez, ebaluatzea eta berrikustea erabaki dugu, eta, beharrezkoa bada, eguneratzea. Horretarako, erakundearen genero-diagnosia egiten hasi gara.

··· Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak parte hartu duen erakunde-dokumentuei egindako ekarpen guztietan, genero-ikuspegia txertatzen zela bermatu dugu.









··· Gure erakundearen aurrekontuak genero-ikuspegiarekin lantzea helburu duen barne-prozesuarekin jarraitu dugu, genero-ekitatearekin dugun konpromisoaren emaitza gisa; horrez gain, xedea da arlo horretan kide diren erakundeei bidea irekitzea. Horretarako sortu dugu *Genero-ikuspegia duten aurrekontuak Euskadiko GGKE-en Koordinakundean: irismen eta ibilbide luzeko prozesua. Aurrekontu bat aztertzerakoan kontuan hartu behar diren irizpideen proposamena* dokumentua. Orain arte egindako lana biltzen du, eta aurrera egiten du genero-ikuspegia erakundearen aurrekontuetan zer neurritan txertatzen den aztertzeko eta barematzeko tresna espezifikoen diseinuan, betiere ikuspegi pedagogiko batetik. Tresna horien artean, jarraipen-fitxa bat nabarmendu behar dugu, aipatutako ikuspegia zer neurritan txertatzen den aztertzen duena jardueretan duen zeharkakotasuna aztertuz. Horretarako, Yolanda Jubetoren laguntza izan dugu; Jubeto EHU/UPVko irakaslea da, arlo horretan aditua. Saio bat ere antolatu dugu; prestakuntzaren eta jardunaldien atalean azaldu da, modu zabalago batean.


Aurrekontuak lupa feministarekin

2020ko Abenduaren 16a → 11:00 -13:00

Saiorako sarbidea: https://bit.ly/2JAglwb

Helburua:

Euskadiko GGKEen Koordinakundea eta euskal erakunde publiko batzuk, Eusko Jaurlaritza kasurako, urratsak egiten ari gara gure erakundeetako aurrekontuek genero-ikuspegia kontuan izan dezaten. Jardunaldi hauetan, egindako aurrerapen nagusiak aurkeztu nahi ditugu, baita erronka gisa daukagun lana ere, interesa duten GGKEek informazioa eduki dezaten eta, are gehiago, tresnak izan ditzaten gure aurrekontuetan begirada feminista zer neurritan txertatzen dugun eta hori gauzatzeko modu propositiboan zer landu dezakegun kalkulatzeko.

Hartzaileak: GGKEak, erakundeak eta pertsona interesdunak.

Izen-ematea: https://labur.eus/skGsA Abenduaren 15era arte, esteka honetan.

Egitaraua:

Jardunaldiaren aurkezpena

Hitzaldia. Yolanda Jubeto Ruiz. Ekonomista feminista

Koordinakundeko genero-taldeak arlo horretan egindako lanaren aurkezpena. Mila Dominguez Vazquez eta Sonia Gonzalez Martin.

Galderen txanda eta eztabaida.

Mahai instituzionala. Genero-ikuspegia txertatzea euskal erakunde publikoetan.

Galderen txanda eta eztabaida.

··· Gure Genero-politikak eskatzen duen bezala, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan gure erakundea ordezkatzen duen pertsona batek genero-arduradunaren postuari eutsi dio.

··· Harreman instituzionalei eta gai espezifikoei dagokienez, bilerak egin ditugu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Genero-arduradunarekin, lan-agendak partekatzeko, informazioa trukatzeko eta elkarrekin lan egiteko bideak aztertzeko.

··· Ikuspegien eta edukien bidez, genero-ikuspegia sartu dugu gure komunikazio-lanean, bai eta antolatu ditugun prestakuntzetan eta jardunaldietan ere.

··· Gainera, generoari buruzko prestakuntza-ekintzak egin ditugu, gure erakundeari, beste GGKE eta kolektibo batzuei, erakundeei, Euskadiko lankidetza-arloko eragileei eta, oro har, gizarte osoari bideratuta.






# Eragin politikoa

Erakunde publikoekin eta alderdi politikoekin lan egiten dugu, kalitate oneko lankidetza-politika deszentralizatua sustatzeko eta haren balioa azpimarratzeko.

··· Harreman egonkorrak ditugu lankidetza-politikak lantzeaz arduratzen diren eragileekin. Azpimarratzekoak dira, adibidez, honako hauekin egiten ditugun bilerak: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietako lankidetza-arloekin, eta Gasteizko, Bilboko, Donostiako eta beste zenbait udalerritako udalekin. Bilerak egiten ditugu, orobat, gobernuko eta oposizioko talde politikoekin, Eusko Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan eta hiru hiriburuetako udaletan. Gainera, Euskadiko alderdi politiko nagusien zuzendaritzekin ere hitz egin dugu, erkidegoko hauteskundeen esparruan, bereziki. Horrez gain, urtero egiten ditugu agerraldiak Legebiltzarreko organoetan. Bereziki nabarmendu behar dugu, uztailaren 17an, Bizkaiko Batzar Nagusietako Eskaeretarako eta herritarrakazko hartu-emonetarako batzordean egindakoa, COVID-19ak sortutako krisiari irtenbide justu eta inklusibo bat emateko gure proposamenak aurkezteko.

··· Uztailaren 12ko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeen harira, lankidetzarekin lotutako eskaera-multzo bat helarazi dizkiegu alderdi politikoei, beren hauteskunde-programetan kontuan har ditzaten. Gero, alderdi horien hauteskunde-programak aztertu ditugu, gaiarekin zer konpromiso-maila duten jakiteko. 7 arrazoi biltzen dituen grafismo bat ere egin dugu, herritarrak elkartasun-gakoetan bozkatzera bultzatzeko.






Bestalde, ekainaren 24an, Sareen Sarea, Osoigo.com eta Hegoa entitateekin elkarlanean, hauteskunde-eztabaida telematiko bat antolatu dugu. Alderdi nagusietako hautagaiek hartu dute parte Xabier Madariaga kazetariak moderatutako saioan. Aurretiko asteetan, herritarrek gizarte-gaiekin lotutako galderak egin ahal izan zizkieten hautagaiei Osoigo.com atarian, eta boto gehien jaso zituzten galderak landu zituzten eztabaidan. Horrez gain, atari horretan bertan, lankidetza-politikei buruzko galdera bat argitaratu dugu, alderdi politiko nagusiei zuzenduta.

Bestalde, Sareen Sareak ere (sare horretako kide gara) dokumentu batean bildu ditu hainbat eskaera sozial –besteak beste, lankidetzarekin lotutakoak–, eta dokumentu hori euskal alderdi politiko nagusiei helarazi zaie.

... Orobat, ekarpenak egin ditugu zenbait erakunderen eta alderdiren hainbat dokumentutan (araudi-esparruak, deialdiak, dekretuak…).

... Ordezkaritza aktiboa dugu elkarrizketarako eta parte hartzeko zenbait eremutan; horien agenden jarraipena egin dugu, eta jarrerak, proposamenak eta ekarpenak aurkeztu ditugu. Hauek nabarmendu ditzakegu: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua (baita haren Batzorde Iraunkorra eta Eusko Jaurlaritzaren agenteen eta sailen lantalde bat ere, politiken koherentziari buruzko gaiak lantzeko); Kanpo Ekintzarako Batzordea; Lankidetzarako Udal Kontseiluak, Bilbon (eta haren Batzorde Exekutiboa), Donostian (eta haren Batzorde Iraunkorra) eta Gasteizen (*Elkargune* deritzo); Arabako Foru Aldundiaren *Eskutik Mundura* prozesua; Gipuzkoako Lankidetzarako Mahaia; eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia.




HORRI BURUZKO DOKUMENTAZIOA KONTSULTATZEKO ETA EZTABAIDA DIGITALA IKUSTEKO, SARTU GURE WEBGUNEAN.






Zehazki, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren jardunaren barruan, garapenerako politiken hezkuntzari eta koherentziari buruzko txostena egiten izandako aurrerapenak nabarmendu behar ditugu. Halaber, azpimarratu behar dugu Donostiako Lankidetzarako Udal Kontseiluan adierazleen eta esparruen matrize bat egiten sakondu dugula, garapenerako politiken koherentziaren ikuspegia eta 2030 Agenda aplikatzeko. Era berean, Bilboko eta Donostiako Lankidetzarako Udal Kontseiluetan, erakundearen lankidetza-aurrekontuaren bilakaerari buruzko hausnarketa bat aurkeztu dugu, bai eta etorkizunerako lan-proposamen bat ere. Eta ezin aipatu gabe utzi Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldeko lankidetzaren etorkizunari buruz hasitako hausnarketa-prozesuan izan dugun parte-hartzea.

··· Erakundeek garapenera bideratutako laguntza ofizialaren ehunekoa kalkulatzeko sistema homogeneo bat ezartzeko proposamena sustatzen jarraitu dugu. Alde horretatik, gure helburua da, modu malgu batean, nazioko produktu gordinaren % 0,7 bideratzeko nazioarteko adostasunera iristeko bidean aurrera egitea.

··· Euskadiko erakundeetan, lankidetzaren alorrean indarrean den legedia betetzen den aztertu dugu. Erakunde horien aurrekontuen jarraipena egin dugu, gobernu-taldearen hasierako proposamenak aztertuta, eta oposizioko alderdi politikoak ere kontuan hartuta. Zazpi euskal erakunde nagusiek lankidetzara bideratutako aurrekontuen zenbatekoan jarri dugu arreta, bereziki. Hori bereziki garrantzitsua izan da mundu-mailako pandemiaren testuinguruan, politika horien egonkortasuna arriskuan jar baitzitekeen. Beste urrats bat egin dugu datuen azterketan ere, eta Euskadiko lankidetza-zifren errealitatea barne-produktu gordinaren arabera islatzen saiatu gara; azterketa hori, hain zuzen, erakundeei eta alderdi politikoei helarazi diegu, eta lankidetza-kontseiluetan partekatu dugu. Era berean, Arabako Foru Aldundiarekin egindako lana nabarmendu behar dugu, lankidetzarako aurrekontua oso ehuneko handian murriztu baita.

··· Jarraipena egin diegu erakunde nagusien ekimenei, Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta 2030 Agendakoak lortzen laguntzeko.

··· Garapenerako politiken koherentziaren arloa landu dugu erakundeekin, eta politika horien jarraipena egin dugu. Helburua da gobernu baten ekintzen multzoak lankidetzaren eragina hobetzeko helburua partekatzea eskatzea. Gobernuek ziurtatu egin behar dute politika guztiak bat datozela giza garapen zuzen eta iraunkorra lortzeko helburuekin, eta pobreziaren eta desparekotasunen aurkako borrokarekin, esku-hartze bakar batek ere ez ditzan geldiarazi edo bertan behera utzi lankidetzaren bidez lortutako aurrerapenak.

··· Hiriburuak ez diren Euskadiko udalerrietan, eskala txikiko aktibismoa eta kontzientzia sozial kritikoa pizteko eta berreskuratzeko asmoz, funtsezkoa iruditzen zaigu tokiko erakunde txikienak babestea eta indartzea, eta nazioarteko elkartasuna tokian tokitik zilegiztatzea.





# Mobilizazioa eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza

Gizarte-eraldaketarekin dugun konpromisoaren harira, mobilizazioak eta ekintzak antolatu ditugu, sentsibilizaziorako jardunaldiak eta jarduerak egin ditugu, eta GGKE-ek eta beste kolektibo edo eragile batzuek sustatutako egitasmoak babestu ditugu.

··· Bizkaiko Gizarte-eraldaketarako hezkuntza taldeak, hiru lurraldeetako kide diren GGKE-en parte-hartzearekin, testu bat prestatu du, eta 2021eko Batzar Orokorrean bozkatuko da. Xedea da erakundearen gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren eredu-dokumentua izatea.

··· Aipatutako eredu-dokumentu hori definitzeko egindako lana abiapuntutzat hartuta, gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren barne-estrategia bat lantzeko prozesu bat bultzatu dugu. Asmoa da erakundearen estrategia orokor bat sortzea, lurraldez lurralde egiten den lana abiapuntutzat hartuta. GGKE-ekin parte-hartzezko prozesu bat diseinatzeko eta ezartzeko, Altekio–Inciativas hacia la sostenibilidad kooperatibaren laguntza izan dugu.

··· Unibertsitate Kritiko Sarea GGKE-ek (besteak beste, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak) eta Gipuzkoako EHU/UPVko campuseko unibertsitate-eragileek osatzen dute. Ahaleginak koordinatzea, baliabideak optimizatzea eta unibertsitateak gizartean ahalik eta eragin handiena lortzea ditu xede. Sare horretan parte hartu dugu, eta lagundu egin dugu, Gizarte-mugimenduen Herri Unibertsitatearen antolaketaren aurretiko prozesuan, esaterako, eta 2021ean egingo dena.

··· Gure *Hezkuntza-baliabideen katalogoa* eguneratu dugu Interneten; kide diren GGKE-en hainbat material biltzen ditu. Tresna hori erreferentzia erabilgarria da ikastetxeentzat eta partikularrentzat, eta baliabideetan bilaketa zehatzak egiteko aukera ematen du, gai jakinen edo hartzaileen adin-tarteen arabera. Gainera, hezkuntza-erakunde nagusiei ere ezagutarazi diegu material hori.

KONTSULTATU HEZKUNTZA-BALIABIDEEN KATALOGOA GURE WEBGUNEAN.

··· Donostian urtero egiten den *Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio-jarduera mundu-mailako pandemiarekin lotuta egon da. Lehen jardunaldia ekainaren 6an izan da, Igorrekin eta Junerekin arratsalde dibertigarria izenekoa. Saio telematiko dibertigarria izan da, ETBko Goazen! gazteentzako telesaileko bi kiderekin; saioan, denetik izan da, entretenimendua, musika, elkartasun-mezuak… Bigarren saioa on line egindako mintegi bat izan da, Elkartasunerako eta elkarren arteko laguntzarako ekimenak osasun-larrialdian: lorpenak, erronkak, ikasketak eta hurrengo pausoak izenekoa. Ekainaren 9an izan da; Aizpea Goenaga aktoreak eta gidoilariak aurkeztu du, eta Helena Maleno kazetari eta giza eskubideen defendatzailearen testigantza entzun ahal izan da. Horrez gain, pandemiako hainbat esperientzia solidario aurkeztu dira, hala nola Gizalde eta Herritarron Sarea, Gipuzkoan; ARTE, El Salvadorren; eta Escuela para la Libertad de las Mujeres, Mexikon.






AIPATUTAKO BI SAIO HORIEN BIDEOAK BERRIRO IKUS DITZAKEZU YOUTUBEKO GURE KANALEAN.









... Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna da, eta, Zero pobrezia kanpainaren esparruan, pobrezia eta berdintasunik eza eragiten dituzten arrazoiak salatu ditugu. *Aurre egin desberdinkeriei. Otro mundo sigue siendo posible y necesario* leloarekin, hainbat elkarte batu gara Pobreziaren aurkako Astean.

Gipuzkoan, honako jarduera hauek antolatu ditu Donostiako Zero Pobrezia plataformak, eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundetik dinamizatu ditugu. Urriaren 14an, prentsaurreko bat egin dugu Klub Nautikoaren kanpoaldean, Pobreziaren aurkako Astea aurkezteko. Urriaren 16an, kale-ekintza bat egin dugu; zehazki, mobilizatzera bultzatzeko eta sentsibilizatzeko mezuak dituzten pankartak jarri ditugu Donostiako hainbat gunetan. Helburua izan da oinezkoen eta komunikabideen arreta lortzea, pobrezia eragiten duten kausak eta desparekotasunak salatzea, eta Donostiako Zero Pobrezia plataformaren proposamenak erakustea. Horrez gain, urriaren 17an, ohiko bizikleta-martxa egin da, Donostiako Haizearen orrazia eskultura dagoen lekutik Boulevardera, Txita Sound System taldearen musikaz girotuta. Gainera, bere 15. urteurrenaren harira, Donostiako Zero Pobrezia plataformak bideo zirraragarri bat egin du, plataformaren ibilbidea eta bertako kide diren erakundeen testigantzak biltzen dituena.

Gainera, DBUSekin koordinatuta, urriaren 17an, Zero Pobreziaren kartelak jarri ditugu Donostiako autobus publikoetan. Bestalde, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguna gogoratzeko iragarki batean parte hartu dugu; Sareen Sareak (bertako kide da Euskadiko GGKE-en Koordinakundea) eta EITBk egindako akordioaren baitako ekimena izan da, eta helburua da Euskadiko hirugarren sektore soziala sustatzea.

BIDEOA HORI IKUS DEZAKEZU SAREEN SAREKO YOUTUBEKO KANALEAN.

PLATAFORMAREN 15 URTEAK OSPATZEKO BIDEOA YOUTUBEKO GURE KANALEAN IKUS DEZAKEZU.



15urte



Donostiako Zero Pobrezia plataformak beste jarduera batzuetan parte hartzea aurreikusita zuen, hala nola urtero, martxoan, Donostian egiten den Lilatoia herri-lasterketan, baina bertan behera gelditu zen, pandemia zela eta.

··· Azaroaren 19an, *Gasteiz konexioan* urteroko sentsibilizazio-jardunaldia antolatu dugu Arabako hiriburuko Aldabe Gizarte Etxean. Aurtengoan, osasun-larrialdia tarteko, streaming bidez soilik transmititu da zuzenean, eta Gorka Aguinagalde gasteiztar aktoreak aurkeztu du. *Lankidetzan osasunean* izenburupean, helburua zen mundumailako pandemia hau eta Euskadiko lankidetzak esku hartzen duen herrialdetan izan duen eragina aztertzea, bai eta horren harira Vitoria-Gasteizen aktibatu diren zenbait elkartasun-adierazpen ezagutaraztea ere. Hauek hartu dute parte: Gosearen Aurkako Ekintza elkarteko Nigerreko ordezkariak, Tangerreko Migrazio Diozesiko ordezkariak, Erizainak Saharan Euskadiko osasun-elkarteko ordezkariak, eta Goian Alde Zaharreko hezkuntza-proiektuko ordezkariak. Kai Nakai gasteiztar musikariaren emanaldia ere izan da, bai eta Pez Limbo Arabako konpainiaren Homo Amabilis antzezlana ikusteko aukera ere.

··· Bestalde, heziketa-zentroetan zenbait lantegi antolatzen lagundu dugu. *Zein da zein?* gure sentsibilizazio-kanpainaren baitan, Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional, Arabako Lankidetza Batzarra eta Lankidetzarako Ingeniaritza - Ingeniería para la Cooperación ICLI erakundeek beren proiektuak eta esperientziak partekatu dituzte Arabako hiriburuko ikastetxe hauetako ikasleekin: Francisco de Vitoria institutua, Corazonistas eta Mercedarias.

··· Mundua eskolan, eskola munduan programak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatuak, arrazismoa eta diskriminazioa prebenitzen lagundu nahi du, eta ikastetxeetan enpatia eta elkartasuna sustatzen. Helburu horrekin, eta migratzaileen testigantzei esker, tailerrak egin ditugu ikastetxe hauetan, eta, horrez gain, bertako irakasleekin lan egin dugu: Corazonistas (Vitoria-Gasteiz), Ama Guadalupekoa (Hondarribia) eta Jesuitak Indautxu (Bilbo). Tailerrak aurrez aurrekoak izatekoak ziren, baina pandemia dela-eta, formatu telematiko batera egokitu dira.




JARDUERA HORI GOGORA DEZAKEZU YOUTUBEKO GURE KANALEAN.





Helburu berak dituzten beste gizarte-mugimendu eta -eragile batzuekin ere itunak ditugu, eta haiekin lan egiten dugu sarean, ekintza gehiago egin eta gehiago eragin ahal izateko:

··· Emakumeen giza eskubideen eta genero-ekitatearen defentsan aritzen diren sareekin aliantzak sendotzen jarraitu dugu. Bizkaiko martxoaren 8ko (Emakumeen Nazioarteko Eguna) koordinakunde feministan hartu dugu parte, *Antolatu indarrak. Batu borroka feministara* mobilizazio-lelotzat hartuta. Era berean, Bizkaiko azaroaren 25eko (Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna) koordinakunde feministan ere hartu dugu parte; aurten, lelo honekin atera gara kalera: *Indarkeria matxistaren aurrean, zerbitzu publikoak defendatu!*. Donostian ere koordinatu gara, mugimendu feministan aktiboki diharduten eta GGKE bazkideetako partaide diren pertsonen bidez, azaroaren 25eko manifestazioan egoteko.

··· Bestalde, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan parte hartu dugu. Gizarte-mugimenduek eta sindikatuek osatutako plataforma bat da, gure ekonomia eta baliabideak herritarren zerbitzura jartzea helburu duena, pertsonek bizi-baldintza duinak izan ditzaten oinarrizko giza eskubideak aitortuz eta baliatuz.

··· Euskal Herriak kapitalari planto! sarean ere hartu dugu parte; sarearen helburua da ofentsiba kapitalistari gizarte-erantzun bat ematea, eta salaketa eta gizarte-mobilizazioa koordinatu eta antolatzea.

··· Gipuzkoako SOS Arrazakeria, Medicusmundi Gipuzkoa eta beste zenbait kolektiborekin batera, arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako XXIII. martxa antolatzen ere lagundu dugu, nahiz eta gero, osasun-larrialdia dela-eta, bertan behera gelditu.

··· Beste talde batzuekin batera, Donostiako Udalarekin elkarlanean aritzen gara urtero, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian. 2020. urtean, beren programazio paraleloan jarduera propio berritzaile bat txertatzeko lan egin dugu, baina, azkenean, pandemiaren ondorioz, XVII. edizioa bertan behera gelditu zen.

··· Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataforman hartzen dugu parte, errefuxiatuen eta migratzaileen egoera salatzeko eta haiei elkartasuna erakusteko plataforman. Beraz, antolatu dituen ekintzak eta aldarrikapenak babestu ditugu.



# Sektorea eta zerbitzuak sendotzea

## Jendeari, GGKE-ei eta erakundeei emandako arreta

··· Bazkide diren erakundeei, hainbat gairi buruzko informazio- eta aholkularitza-zerbitzua eman diegu; besteak beste, hauek nabarmendu ditzakegu: lankidetza, diru-laguntzen deialdiak, zerbitzuak eta baliabideak, enplegu- eta boluntariotza-eskaintzak, prestakuntzak, materialaren mailegua, genero-ekitatea, komunikazioa, eragin politikoa, gizarte-mobilizazioa, gizarte-eraldaketarako hezkuntza, eta administrazio- eta lege-izapideak. Pandemiaren testuinguruan, zerbitzu hori bereziki garrantzitsua izan da GGKE-ei informazio interesgarria helarazteko.

··· Orientabidea eman diegu informazioa eta aholkuak behar zituzten pertsonei, batez ere GGKE--etan boluntariotza-lanak egiteari eta, elkartasun asmoz, hegoaldeko herrialdeak bisitatzeko aukerari buruz.

HEGOALDEAREKIN ELKARLANEAN ARITU NAHI DUZU? NOLA PARTE HARTU DOSIERRA KONTSULTA DEZAKEZU GURE WEBGUNEAN.

··· Lan-poltsa kudeatu dugu, eta jasotako dohaintzak bideratu ditugu. GGKE-ekin lan egiten duten, Koordinakundeko kide diren erakundeei abantailak, beherapenak edo ekarpen solidarioak egiten dizkieten eta sozialki irizpide arduratsuak dituzten enpresei buruzko informazioa bildu dugu.

··· Batzar Orokor bat egin dugu (maiatzaren 20an, telematikoa), eta 15 lurralde-batzar (5 Araban, 2 Bizkaian eta 8 Gipuzkoan). Lurralde batzarrak aurrez aurrekoak izan ziren pandemia hasi aurretik, eta birtualak, pandemiaz geroztik. Batzar horietan, eta gainerako lantaldeetan, GGKE-ek parte-hartze aktiboa izan dute.

··· Euskaraldia kanpainaren prestaketa-bilkuretara joan gara, euskararen erabilera sustatzea xede duen ekimenean parte hartu baitugu. Gainera, bigarren edizio honetan, gure hiru bulegoak Kanpo arigune gisa aktibatu dira. Barne arigune bat ere sortu dugu, euskararekin dugun konpromisoa handituz eta indartuz joateko.

··· Sareen Sarean hartu dugu parte; Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen sareak biltzen ditu, eta haren xedea da gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta partizipatiboa sustatzea, pertsona guztion eskubideak errespetatuko dituen gizarte bat. Nabarmentzekoak dira Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna, sare sozialetan egin dena osasun-larrialdiaren ondorioz, pandemiaz geroztik Euskadiko hirugarren sektore sozialaren egoeraren txostenari egindako ekarpenak, eta eragin politikoaren estrategia. Aipatzekoak dira, halaber, sare honek Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokian edota Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria egiteko prozesuan duen parte-hartzea. Gainera, sare horretako kide garenez, Elkarrizketa Zibileko Mahaian dugun parte-hartzea koordinatuago dago espazio horretan parte hartzen duten hirugarren sektoreko gainerako erakundeekin.

··· Espainiako Garapenerako Erakundeen Koordinakundeko kide gara, eta, beraz, haren lanaren jarraipena egin dugu, eta haren ekimenak bultzatu ditugu. Maiatzaren 29an eginiko Batzar Orokor telematikoa, urriaren 7ko zuzendaritzen eta lehendakaritzen bilkura, eta Erkidegoetako Koordinakundeen Sarearen bilkurak (otsailaren 7an, maiatzaren 6an edo irailaren 17an) nabarmendu behar ditugu. Bilkura horietan guztietan, aktiboki hartu dugu parte.

··· Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak Eusko Jaurlaritzako Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programaren Hautaketa-Batzordean parte hartzen du. Hortaz, eta pandemiak aurten eragindako zailtasunak gorabehera, ekimen honetan parte hartzen jarraitu dugu, gure lan-esparrutik ekarpenak eginez eta haren lana babestuz.



··· Gainera, Euskadiko Finantza Etikoen Elkarteko kide gara. Haren helburua da Euskadin banka etikoaren sistema bat finkatzen laguntzea. Urriaren 22an izandako Batzarrean (aurrez aurrekoa eta telematikoa) hartu dugu parte.

··· Gure egoitza, Araban, Gasteizko Simone de Beauvoir Elkarteen Etxean dago; Bizkaian, Bilboko Boluntaren Ganbara elkargunean (Bizkaiko boluntariotza eta gizarte-partaidetza agentzia); eta Gipuzkoan, Donostiako lokal batean, beste erakunde batzuekin batera. Testuinguru horri esker, beste pertsona batzuengana eta hartzaile gehiagorengana eta askotarikoengana iristen gara. Gainera, Gasteizko Udalak utzitako lonja bat ere badaukagu, Koordinakundeko bazkide diren GGKE-en materialak gordetzeko.

··· Askotariko gaiei buruzko 14 jarrera-hartzerekin, kontzentraziorekin, manifestaziorekin eta kale-ekintzarekin bat egin dugu: batzuk bazkide diren erakundeenak, eta beste batzuk, berriz, kanpoko kolektiboenak.

··· Bitartekaritza-lanak ere egin ditugu GGKE-en eta erakundeen edo beste erakunde eta eragile batzuen artean; lan horretan, jarduerekin, ekimenekin eta espazioekin lotutako proposamenak bideratu dizkiegu erakundeei, haietan parte hartu ahal izateko, eta elkar hobeto ezagutu eta hobeto koordinatu ahal izateko. Horien artetik, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

**Araban**, Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, *Geure burua aurkitzen: garapenerako eta osasun-alorrerako lankidetza. Garapenerako GKE-en eta osasun--alorreko erakundeen arteko topaketa- eta ezagutza* III. tailerra antolatzea genuen aurreikusita, baina jarduera atzeratu egin behar izan da, pandemiaren eraginez.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiarekin eta Amurrioko Udalarekin batera, *Mundu-mailako begirada pandemiari osasun eta berdintasunetik. Amurrioren eta munduaren ekimen solidarioak krisiari aurre egiteko* jardunaldia antolatu dugu abenduaren 1ean. Saio telematiko horren xedea izan da Amurrioko herritarrekin pandemiak osasunean eta lankidetzan izan duen eraginaz hausnartzea, tokiko eta mundu-mailako ikuspegitik, bai eta generoaren ikuspegitik ere. Iratxe Estrada kazetariak aurkeztu du, eta hizlari hauek hartu dute parte: Amaia Bacigalupe de la Hera, osasunean eta generoan aditua eta EHU/UPVko irakaslea, eta Eduardo García Langarica, landa-eremuko medikua eta Espainiako Medicus Mundu elkarteen federazioko lehendakaria. Bestalde, pandemia garaian, beste lau elkartasun-ekimen eman dira ezagutzera: Amurrioko tokiko boluntario-sarea, udalerri bereko Zaraobe institutuan sortutako ekimen bat, Doctora Beituha elkarteak Saharan egindako lana, eta Kolonbiako Cauca Eskualde Batzorde Indigenaren ekimen bat.

**Gipuzkoan**, lan handia egin dugu hango erakunde, sare eta plataforma ugariak koordinatzen, zenbait alderditan lurralde deszentralizatu samarra baita, eta maiz eskualde-mailan funtzionatzen baitu. Gipuzkoako zenbait udalekin elkarlana sustatzen jarraitu dugu; lurralde horretan, elkarte-mugimendua oso aktiboa da, eta horren erakusgarri dira, zenbaitetan, udal-mailan ere badauden jardunbide egokiak.




EKIMEN HONEN BIDEOA BERRESKURATU DEZAKEZU GURE YOUTUBEKO KANALEAN.



## Prestakuntza eta jardunaldiak

GGKE-ek zer prestakuntza-behar dituzten aztertu dugu, eta erakundeen eta beste zenbait eragileren proposamenak aztertu ostean, honako ekintza hauek antolatu ditugu:

··· Otsailaren 27an, *Euskaran trebatzeko formakuntza: itzulpen praktikoa* tailerra antolatu dugu Donostian, Bakun Itzulpen Zerbitzuak emandako beste saio bat, GGKE-etan eta lankidetzaren esparruan euskararen erabilera sustatzen jarraitzeko.



··· Maiatzaren 14an eta 18an, *Komunikazio feminista baterantz GGKE-etan* jardunaldia antolatu dugu, Mugarik Gabe erakundeko María Viaderok gidatuta. Xedea izan da GGKE-etan edukiak, hizkuntza eta irudiak diseinatzeari eta erabiltzeari dagokienez alternatibak eraikitzeko proposamenak ezagutzea. Jardunaldiak halako arrakasta izan zuen, maiatzaren 26an eta 28an berriro antolatu baitzen prestakuntza-saio hori.

··· Irailaren 30ean, Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera, *GGKE-ekin lan-saioa, Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiei buruz* tailerra antolatu dugu Arabako hiriburuan. Helburua izan da udaleko 2020ko lankidetzarako dirulaguntzen deialdien prozedura bateratzea, eta 2021eko deialdiei buruzko informazioa ematea. Horrez gain, GGKE-entzako eta Udalarentzako ikaskuntzak eta hobekuntza-proposamenak partekatu nahi izan dira.

··· Urriaren 23an eta 24an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta Hegoa Institutuarekin elkarlanean, gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko III. jardunaldiak antolatu ditugu; jardunaldiak telematikoak izan dira, eta *Tokikoa eta globala antolatzea, ekintza pedagogiko eraldatzaileetan aurrera egiteko* du izenburua. Topaketa horien bitartez, jendea hausnartzen jartzea eta hezkuntza-eragileek ikuspegi hori txertatzeko dituzten gaitasunak indartzea lortu nahi izan da. Besteak beste, Catherine Walsh-ek (Andeetako Simón Bolivar unibertsitateko "Quito" Latinoamerikako kultur ikasketen doktoregoko zuzendariak/sortzaileak) eta Nacho Ribasek (Malagako unibertsitateko irakasleak) hartu dute parte; horrez gain, tokian tokiko eta mundu-mailako esperientzia eraldatzaileak landu dira.








BIDEOAK ETA JARDUNALDIARI BURUZKO AZALPENA BERRIRO IKUS DITZAKEZU GURE WEBGUNEAN.

··· Gernika Gogoratuz, EHUgune, REAS Euskadi eta Mugarik Gabeko Ekonomialariak elkarteekin elkarlanean jardun dugu *IV. laborategia. Bakearen ekonomia, euskal enpresa eta giza eskubideak* ekimena antolatzeko. Saioa Bilbon egin da, urriaren 28an. Jardunaldi horretan, gogoeta egin da osasun-krisiari aurre egiteko politika ekonomikoei, bizitzaren iraunkortasunari eta zaintzari buruz, bai eta enpresa-ekintzari eta bertan giza eskubideak txertatzeari buruz ere.

··· Azaroaren 12an eta 20an, *Sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa gure erakundeetan aplikatzen* jardunaldiak (telematikoak) antolatu ditugu. Helburua izan da gure erakundearen Sexu-jazarpeneko eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoeretan prebentzioa lantzeko eta esku hartzeko protokoloan sakontzea, eta gai horren inguruan izan diren esperientziak ezagutzea zenbait adituren eskutik, hala nola Ana Vidu (Deustuko Unibertsitatea) eta Tania Martínez (UPV/EHUko irakaslea).

**JARDUNALDIKO BIDEOAK BERRIRO IKUSI GURE WEBGUNEAN.**

··· Abenduaren 2an, *Eraldaketarako lankidetza. Lankidetzaren papera etengabeko eraldaketan dagoen munduan* jardunaldia antolatu dugu Bilbon (streaming bidez ere eman dugu). Begoña Yebra eta Xabier Madariaga kazetariek moderatuta, bi mahai-ingurutan hartu dute parte Euskadiko erakunde publiko nagusietako lankidetza-arloetako ordezkariek eta zenbait adituk. Azken horiek, aurrez, garapenerako lankidetzari buruzko artikulu motibagarriak eta iradokitzaileak idatzi zituzten. Adituen artean, hauek aipa ditzakegu: Irantzu Varela (Faktoria Lila), Zesar Martínez (UPV/EHUko irakaslea eta Zumalabe Fundazioko kidea), Carlos Askunze (REAS Euskadi) eta Aitor Pérez (Real Instituto Elcano). Gainera, jardunaldi horren aurretik, azaroaren 26an, barne-saio bat antolatu dugu on line bazkide diren GGKE-ekin, gure erakundearen jarrerak eta aipatutako saio irekiaren edukiak adosteko. Hori guztia, erakundeez osatutako talde eragile batek dinamizatutako hausnarketa prozesu zabalaren emaitza izan da. Gogoeta horren helburua izan da GGKE-en eta lankidetzarako euskal politikaren lana balioan jartzea, mundu-mailako osasun-krisiaren testuinguruan. Prozesu honek 2021ean jarraituko du.

**JARDUNALDIKO BIDEOAK ETA ARTIKULUAK BERRIRO IKUS DITZAKEZU GURE WEBGUNEAN.**






··· Abenduaren 16an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera, erakunde barruan generoari buruzko 5. jardunaldiak antolatu ditugu; telematikoki egin ditugu. *Aurrekontuak lupa feministarekin* izenburupean, saioaren helburua izan da gure erakundearen aurrekontuak genero-ikuspegitik lantzeko egindako barne-prozesuan izan diren aurrerapenak aurkeztea. Yolanda Jubeto ekonomialari, feminista eta EHU/UPVko irakasleak, gure erakundeko genero-taldeak eta euskal erakunde publikoetako ordezkariek hartu dute parte.

**JARDUNALDIARI BURUZKO BIDEOAK ESKURAGARRI DITUZU WEBGUNEAN HONETAN.**

··· Halaber, prestakuntza-saioak egin ditugu, erakundeko bazkide diren GGKE-ek beraiek emanda. Saio horiek gainerako erakundeei zuzenduta daude, eta xedea da ezagutzak eta esperientziak partekatzea, eta ezagutza partekatuen sare bat sortzea, sektorea indartze aldera. Abenduaren 22an, zehazki, *Ekonomia sozial eta solidarioaren praktikak, gure erakundeetatik aldaketan laguntzeko* izeneko saioa egin da on line, Mugarik Gabeko Ekonomialariak gidatuta.

··· Gainera, pandemiaren testuinguruan, prestakuntza-saio telematiko laburren ziklo bat antolatu dugu, hainbat arlori buruz. Helburua izan da GGKE-ei tresna teknologikoak eta metodologikoak aurkeztea, bai eta tresna psikologikoak ere, erakundeei eta bertako kideei osasun-larrialdiko egoerari eta antolakuntzan nahiz maila pertsonalean izan dituzten ondorioei aurre egiten laguntzeko. Zehazki, ekainaren 3an, *Geure burua zaintzen ikasi, ziurgabetasunak kudeatzeko* mahai-ingurua antolatu dugu; Emma Ortiz aholkulari, prestatzaile eta coach-a izan da hizlaria. Bestalde, uztailaren 9an, *On line prozesuak erraztea* tailerra egin dugu, Altekio–Iniciativas hacia la sostenibilidad kooperatibaren eskutik. Saioak harrera ona izan duenez, bigarren saio bat antolatu dugu uztailaren 31n. Azkenik uztailaren 6an eta 26an, *Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin lotutako tresnak, informazioa biltzeko, gordetzeko, prozesatzeko, transmititzeko eta aurkezteko, edozein formatutan; hau da, ahotsa, datuak, testuak zein irudia* ikastaroa antolatu dugu; Saregunek gidatu du.

Bestalde, beste eragile batzuek antolatutako kanpoko prestakuntza-saioetan ere izan da Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, kasu batzuetan entzule gisa eta beste batzuetan partaide, hizlari edo laguntzaile gisa. Horien artean, hau nabarmendu behar dugu:

··· Urriaren 24an, Goitibera aldizkariak Bilbon antolatutako *Goitiforoa. Komunikazioa Hirugarren Sektore Sozialean: lan ikusezinari ahotsa ematea* jardunaldian parte hartu dugu. Jardunaldian, beste gizarte-erakunde batzuekin batera, gure ikuspegia azaldu dugu komunikazio asoziatiboaren helburuei dagokienez.






## Ikerketak

Lankidetzaren sektorea hobetzen eta sendotzen laguntzeko, honako ikerketa hauek sustatu eta egin ditugu:

··· Aurreko urteetako lanari jarraipena emateko, eta enpresak nazioartekotzeari dagokionez euskal politikak giza garapen jasangarriarekin zenbateraino lerrokatzen diren ezagutaraztea helburutzat hartuta, *Giza garapen jasangarrirako politiken koherentzia. Enpresak nazioartekotzeko Euskadiko politikaren bereizgarri nagusiak* ikerketa amaitu dugu. Zehazki, ikerketaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko foru-egitura izan da, baina, horrez gain, jarraipena egin zaio Eusko Jaurlaritzaren ekintzari, gure aurreko ikerketa egin zenetik bi urtera. Ikerketa hori OMAL Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiarekin batera egin dugu.




ARGITALPEN HORI KONTSULTA DEZAKEZU GURE WEBGUNEAN.

··· Beste inkesta bat egin dugu kide diren GGKE-en artean, sektorea zer egoeratan dagoen jakiteko. Indaga enpresarekin batera egindako lan honetan, hainbat eremuri buruzko informazioa bildu dugu, hauei buruzkoa, besteak beste: erakundearen datuak eta ezaugarriak, genero-ekitatea, finantzaketa-bideak eta lankidetzako, gizarte-eraldaketarako hezkuntzako eta ekintza humanitarioko proiektuak, besteak beste.



# Komunikazioa

Gizarte-eraldaketarako komunikazioaren ikuspegitik, gure inguruan eta mundu-mailan jarrera-aldaketak eragiteko eta injustizia ezak eta giza eskubideen urraketak salatzeko ekintzak gauzatzen ditugu:

··· Komunikabideei zuzendutako ekintzak egin ditugu, gure erakundearen jarduerei eta gure jarrerei ikusgarritasuna emateko. Besteak beste, hauek nabarmenduko ditugu: *Elkartasuna da erantzuna* kanpaina; ekintzak edo prentsaurrekoak (urriaren 14an eta 16an Donostian, Pobreziaren aurkako Astearen harira); prentsa-oharrak (apirilaren 8an, pandemiari buruzko gure jarrera azaltzeko; ekainaren 22an, hauteskunde-eztabaidarekin lotuta; uztailaren 8an, Euskadiko hauteskundeen harira gure erakundearen eskaerak azaltzeko; azaroaren 16an, *Gasteiz konexioan* ekimenaren berri emateko; azaroaren 20an, Euskadiko erakundeen lankidetzarako aurrekontuen balorazioa egiteko; eta abenduaren 17an, *Eraikuntza* podcasta aurkezteko); iritzi-artikuluak… Horri guztiari esker, eragin nabaria izan dugu komunikabideetan.

··· Asteburuero parte hartu dugu Radio Euskadiko La Galería programan, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen eta bazkide diren erakundeen iritzi-zutabeen bidez.

··· Munduan gertatu diren larrialdi jakin batzuen harira (esate baterako, azaroan, Erdialdeko Amerika astindu zuen Eta urakana), GGKE-en lanari buruzko informazioa bildu dugu. Xedea izan da erantzuna ematea gizartearen, erakundeei eta komunikabideen kontsultei, eta herritarren elkartasuna bideratzen laguntzea.


8 Harian Euskal Herria

«Hiritartasun globala duten pertsonak eraikitzea gehiago kostatzen da»

Iñigo Odriozola • Donostiako Zero Pobreziako bozeramailea

Pobreziaren aurkako nazioarteko eguna da bihar, eta plataformaren eledunak uste du horri aurre egiteko bizitza jarri behar dela erdigunean, eta NBEk bultzatutako 2030 Agendan jasotakoei jarraitu behar zaiela.

«Ihes egin nahi diogu logika humanitarioari; laguntzek garrantzia dute, noski, baina haratago jo nahi dugu»


AL DÍA | CRISIS SANITARIA

Miembros de la plataforma Pobreza Cero, ayer junto al Náutico de San Sebastián.

Pobreza Cero advierte de que la crisis sanitaria ha frenado la lucha contra la desigualdad

La plataforma recuerda que el Covid dejará más de 15.000 pobres en Euskadi y anima a una bici marcha el sábado para visibilizar la desigualdad

AMAIA CHICO

··· Bestalde, gure webgunea etengabe eguneratu dugu, eta, astero, Munduz Mundu buletina bidali diegu izena emanda dauden harpidedunei. Gainera, kide diren GGKE-ei, Gure Gauzak barne-buletina bidali diegu.

GURE WEBGUNEAN AURKITUKO DUZU EUSKAL LANKIDETZARI BURUZKO INFORMAZIOA: JARDUERAK, GGKEAK, LANPOSTUAK, BOLUNTARIO IZATEKO ESKAINTZAK, DIRU-LAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK, ARTIKULUAK ETA LOTURAK, JARDUNALDIAK, KANPAINAK, ARGITALPENAK, IRITZIAK…
BERTAN, ALTA ERE EMAN DEZAKEZU ASTEROKO MUNDUZ MUNDU BULETINEAN.




··· Horrez gainera, komunikazio-lana errazteko tresnak eskaini dizkiegu GGKE-ei; adibidez, bozeramaileentzako argudioak eta komunikabideekin harremanetan jartzeko kontaktuak.

··· 2019ko txostena eta memoria-bideoa argitaratu ditugu. Argitalpen horiek funtsezkoak dira, gardentasuna errazten dutelako eta kontuak emateko bitartekoa direlako ez ezik (eta hala dago jasota gure jarraibide-kodean), baita gure publikoari gure jardunaren berri emateko bidea direlako ere.

··· Azkenik, lankidetzaren alorretik, oro har, eta GGKE-etatik, zehazki, hartzaileei igortzen dizkiegun mezuak nola eguneratu eta berritu hausnartzeko prozesuari jarraipena eman diogu; xedea da herritarrekiko eta haien kezkekiko loturak sendotzea.




GURE ARGITALPEN GUZTIAK GURE WEBGUNEAN DAUDE ESKURAGARRI.

# Nortzuk gara*

* 2020aren amaieran.

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaiguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak…

GGKE bazkideak: 79

Araba: 29 | Bizkaia: 55 | Gipuzkoa: 50

## Gobernu Batzordea

**Lehendakaritza**: Sofía Marroquín, **Oxfam Intermón**. **Lehendakariordetza:** Olatz Ecenarro, **Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu. Idazkaritza:** Mary Tere Guzmán, **ALBOAN. Diruzaintza:** Jaime Bernar, **Zabalketa. Arabako ordezkaria:** Saioa Polo, **Mugarik Gabe,** eta Jimena Pérez, **Mundubat (urteko une desberdinetan). Bizkaiko ordezkaria:** Cristina Alba, **KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo. Gipuzkoako ordezkaria:** Laura Laborra, **Medicusmundi Gipuzkoa**

## Lan-taldeak

### Euskadi

#### Generoa

Amaia Iguaran, **Ayuda Mas.** Silvia Felipe, **Mundubat.** Isabel Uría, **SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia.** María Viadero, **Mugarik Gabe.** Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.** Sonia González, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi.** Sandra Delgado, **ALBOAN.** Nerea Uriarte, **UNRWA Euskadi.** Cristina Alba, **KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo.** Lorena Fernández, **SETEM Hego Haizea.** Mercedes Madrazo, **Lumaltik.** Iris Murillo, **Bakerako Lankidetza Batzarrea.** Olga García, **Intered Euskal Herria.** Mónica Vega, **Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza.** Mónica Oyarzábal, **Proclade Yanapay.**

#### Eragin Politikoa

Sofía Marroquín, **Oxfam Intermón.** Esther Calvo, **Proclade Yanapay.** Regina Zalbidea, **FISC cooperación y desarrollo.** Jesús Ochoa, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak.** Iñaki Orube, **Mugen Gainetik.** Amaia Iguaran, **Ayuda Mas.** Alicia Aleman, **ALBOAN.** Eneko Gerrikabeitia, **Mundubat.** Begoña de Juan, **Mundu Bakean.** Gonzalo Fernández, **Bakea eta Duintasuna.** Mónica González, **Bakerako Lankidetza Batzarrea.** Rafa Ferrer, **Zabalketa.** Ricardo Fernández, **Medicusmundi Bizkaia.** Josu Urrutia, **Mundukide.** Olatz Ecenarro, **Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu.** Irune Martínez, **OSCARTE.** Arantza Acha, **Unesco Etxea.** Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.** Jesús González, **Mugarik Gabe.** Iñigo Odriozola, **TAU Fundazioa.** Iñigo Eguren, **Calcuta Ondoan.** Olga García, **Intered Euskal Herria.**

#### Garapen Iraunkorrerako Helburuak

Arantza Acha eta Nekane Viota, **Unesco Etxea.** Patricia Ponce, **Haurralde Fundazioa.** Amaia Iguaran, **Ayuda Mas.** Patricia Solaun, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak.** Elena Fernández del Castillo, **Elizbarrutietako Euskal Misioak.** Irune Martínez, **OSCARTE.**

#### Euskadiko GGKE-en Koordinakundean sartzeko eskaera berrien Jarraipen Batzordea

Olatz Ocenarro, **Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen Gobernu Batzordea ordezkatuz.** Yolanda Jubeto, **UPV/EHUko irakaslea, kanpo eragile bat ordezkatuz.** Silvia de Gregorio, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko Talde Teknikoa.**

#### Lankidetzari balioa ematea

Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.** Jesús González, **Mugarik Gabe.** Mary Tere Guzman, **ALBOAN.** Pilar Oronoz, **Zabalketa.** Patricia Solaun, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak.**



### Bizkaia

#### Eragin Politikoa

Sofía Marroquín, **Oxfam Intermón.** Esther Calvo, **Proclade Yanapay.** Regina Zalbidea, **FISC cooperación y desarrollo.** Amaia Ruiz, **Bilboko Elizbarrutietako Cáritas.** Amaia Iguaran, **Ayuda Mas.** Alicia Aleman, **ALBOAN.** Begoña de Juan, **Mundu Bakean.** Benja Ramos, **Bakerako Lankidetza Batzarrea.** Rafa Ferrer, **Zabalketa.** Ricardo Fernández, **Medicusmundi Bizkaia.** Olatz Ecenarro, **Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu.** Sonia González, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi.** Irune Martínez, **OSCARTE.** Eneko Gerrikabeitia, **Mundubat.** Jesús González, **Mugarik Gabe.** Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.**

### Gizarte-eraldakerarako Hezkuntza

Pepe Ruiz, **Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza.** Bea Pérez, **Munduko Medikuak.** Ionan Areses, **KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo.** Joana López de Gereñu, **Medicusmundi Bizkaia.** Patricia Solaun, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak.** Mónica Oyarzábal, **Proclade Yanapay.** Oscar Pérez, **Gazteak eta Garapena.** Pablo Vidal, **Farmacéuticos Mundi-Farmamundi.** Olga García, **Intered Euskal Herria.** Iratxe Ugalde eta Jaione de la Puerta, **Bakerako Lankidetza Batzarrea.** Bea Plaza, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi.** Irene Ortiz de Urbina, **Solidaridad Internacional - Nazioarteko Elkartasuna.** Pilar Oronoz, **Zabalketa.** Bárbara Ruiz, **UNRWA Euskadi.** Mª Asun Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.** Monika Vázquez, **Unesco Etxea.** Chiara Calderoni, **Save the Children.**

## Gipuzkoa

### Eragin Politikoa

Jesús Ochoa, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak.** Iñaki Orube, **Mugen Gainetik.** Iñigo Odriozola, **TAU Fundazioa.** Iñigo Eguren, **Calcuta Ondoan.** Xabier Martínez eta Lorea Undagoitia, **Mugarik Gabe.** Mónica González, **Bakerako Lankidetza Batzarrea.** Arantzazu Zubeldia, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi.** Fernando Vaquerizo, **Mundubat.**

### Unibertsitate Kritiko Sarea

Bazkide diren GGKE hauek sare honetan hatzen dute parte:

Pepe Ruiz, **Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza.** Maialen Aginagalde, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak.** Gema Hierro, **Medicusmundi Gipuzkoa.** Patricia Ortiz de Zárate, **Mugen Gainetik.** Edurne Gallo, **Calcuta Ondoan.** Alberto Gastón, **Emaús Gizarte Fundazioa.** Yolanda García, **Enraíza Derechos.**

### Donostiako Zero Pobrezia Plataforma

Bazkide diren GGKE hauek sare honetan hartzen dute parte:

Jesús Ochoa, **Mugarik Gabeko Ekonomialariak.** Gema Hierro, **Medicusmundi Gipuzkoa.** Patricia Ortiz de Zárate, **Mugen Gainetik.** Edurne Gallo, **Calcuta Ondoan.** Ana Mocoroa, **Elan Euskadi.** Ainitze Zabala, **Mugarik Gabe.** Iñaki Revilla, **Proclade Yanapay.** Idoia Azpilicueta, **PROYDE-PROEGA.** Iñigo Odriozola, **TAU Fundazioa.** Ane García, **Behar Bidasoa.** Yolanda García, **Enraíza Derechos.** Miriam Amubieta, **UNRWA Euskadi.**

## Erakundeetan partaidetza

### Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Sofía Marroquín, **Oxfam Intermón.** Josu Urrutia, **Mundukide.**

### Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Olga García, **Intered Euskal Herria.** María del Mar Magallón, **ALBOAN.** Sofía Marroquín, **Oxfam Intermón.** María Viadero, **Mugarik Gabe.** Josu Urrutia, **Mundukide.** Eneko Gerrikabeitia, **Mundubat.** Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.** Iñaki Orube, **Mugen Gainetik.** Santiago Martínez, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi.** Iñigo Eguren, **Calcuta Ondoan.**

### Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra

Iñaki Orube, **Mugen Gainetik.** Mila Domínguez, **ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación.**

### Lankidetzarako Bilboko Udal Kontseilua

Olatz Ecenarro, **Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu.** Esther Calvo, **Proclade Yanapay.** Benja Ramos, **Bakerako Lankidetza Batzarrea.** Sonia González, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi.**

### Vitoria-Gasteizko Garapenerako Lankidetza Elkargunea

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko Talde Teknikoa.**

### Eskutik Mundura

Aurora Hermosilla eta Natalia Rodríguez, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko Talde Teknikoa.**

### Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetza eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua

Iñigo Odriozola, **TAU Fundazioa.** Arantzazu Zubeldia, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi.**

### Gipuzkoako Lankidetza Mahaia

Josu Urrutia, **Mundukide.** Gema Hierro, **Medicusmundi Gipuzkoa.** Leire Morquecho, **ALBOAN.** Sonia González, **Bakea eta Elkartasuna Euskadi.** Iñigo Eguren, **Calcuta Ondoan.** Iñaki Orube, **Mugen Gainetik.** Irene Molero, **Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko Talde Teknikoa.**

## Talde Teknikoa

Irene Molero, **Koordinazio Orokorra.** Aurora Hermosilla, **Administrazioa.** Erika Erkizia, **Erika Erkizia, Idazkaritza Teknikoa eta Logistika.** Natalia Rodríguez, **Incidencia Política,** eta Sergio Moreno, **Eragin Politikoa, eta Sergio Moreno, Politika publikoak, Ikerketa eta Eragina (urteko une desberdinetan).** Silvia de Gregorio, **Generoa eta Sektorearen Indartzea.** Sara Goyeneche, **Mobilizazioa eta Gizarte-eraldaketarako Hezkuntza.** Jon González de Reparaz, **Komunikazioa.**

## GGKEak

Acción Contra el Hambre-Gosearen Aurkako Ekintza
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Ayuda en Acción-Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetza Batzarrea
Baltistan Fundazioa
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutietako Cáritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Egoaizia
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Euskal Misioak
Emaús Gizarte Fundazioa
Enraíza Derechos
Euskadi-Cuba
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Farmacéuticos Mundi-Farmamundi
FISC cooperación y desarrollo
FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa Mariaren Lagundia
Garabide
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritza
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación - Lankidetzarako Ingeniaritza ICLI
Intered Euskal Herria
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Kainabera
KCD ONGD-Kultura, Communication y Desarrollo
Lumaltik
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkarte Afrikanista
Medicusmundi Álava/Araba
Medicusmundi Bizkaia
Medicusmundi Gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektura
Mugarik Gabeko Ekonomialariak
Mugen Gainetik
Mundu Bakean
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikuak
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
OSCARTE
Oxfam Intermón
Pausumedia
Proclade Yanapay
PROYDE-PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskal Herria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi Solidaridad para el Desarrollo y la Paz
Solidaridad Internacional - Nazioarteko Elkartasuna
SOLIVE Solidaridad Vedruna
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
UNRWA Euskadi
Zabalketa

# Kontu argiak



2020ko kontuak BNFIX KLZ Auditores kanpoko enpresak ikuskatu ditu eta egiaztatu du leialki islatzen dutela Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko ondarea eta bere finantza egoera. Informazio gehiago WEBEAN.

| SARRERAK 2020 | BURUTUA (€) | % |
|---|---|---|
| Kuotak | 32.410 | 8 |
| Eusko Jaurlaritza | 200.000 | 49 |
| Arabako Foru Aldundia | 20.000 | 5 |
| Bizkaiko Foru Aldundia | 34.000 | 8 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 45.000 | 11 |
| Bilboko Udala | 18.000 | 5 |
| Donostiako Udala | 34.150 | 8 |
| Gasteizko Udala | 24.000 | 6 |
| Jarduerengatik sarrerak | 300 | 0 |
| Ezohiko sarrerak | 104 | 0 |
| **GUZTIZKOA** | **407.964** | **100** |

| GASTUAK 2020 | BURUTUA (€) | % |
|---|---|---|
| Bulegoko materiala | 6.271 | 2 |
| Soldatak | 304.315 | 74 |
| Bidaiak | 3.049 | 1 |
| Jardueren gauzatzea | 83.356 | 20 |
| Funtzionamendua | 14.541 | 3 |
| **GUZTIZKOA** | **411.531** | **100** |
| **EMAITZA (€)** | **-3.567** | |

# Txostena 2020

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org


**Araba**

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa
01001 **Gasteiz**
945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

**Bizkaia**

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbao**
944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

**Gipuzkoa**

Iparragirre 8, behea
20001 **Donostia**
943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org




## Laguntzaileak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA / AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
araba álava foru aldundia diputación foral
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Gipuzkoako Foru Aldundia
ETORKIZUNA ORAIN
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteiz Udala
Bilbao
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Lankidetza Cooperación

## Euskararekin bat

bidean euskararen bidean
bai euskarari zerbitzua euskaraz


Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.
Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak.